

**DIRU-LAGUNTZA DEIALDIA, ZIZUR
NAGUSIKO ESTABLEZIMENDUETAKO
ERROTULUETAN EUSKARA
ERABILTZEKO**

**CONVOCATORIA DE SUBVENCIONES
PARA EL USO DEL EUSKERA EN LA
ROTULACIÓN DE ESTABLECIMIENTOS
COMERCIALES DE ZIZUR MAYOR**

XEDEA:

Zizur Nagusiko Udalaren Kultur Patronatuak diru-laguntzak emanen dizkie udalerriko establezimenduei jarritako errotulazioan euskara erabiltzen badute (fatxada, erakusleiho, eguzki-oihal eta ibilgailu komertzialetan), honako arau hauek jarraituta:

ARAUAK:

1. Diru-laguntzak 2018. urteko Udaleko Kultur Patronatuaren aurrekontuko 1 33500 4820006 diru-sailaren kontura ordainduko dira. Xede honetarako, gehienez ere, **1.500,00** euro erabiliko dira.
2. Zizur Nagusiko Udalaren Kultur Patronatuak errotulu berrien gastuaren %50eko laguntza emanen du establezimenduak errotulu berrian euskara erabiltzen badu. Gehienez ere 300,00 euroko laguntza emanen du errotulu berri bakoitzeko.
3. Dendariak ez du diru-laguntzarik jasoko errotulu berrian izen berezia soilik agertzen bada; adibidez, "Arantxa" edo "Tximeleta". Aldiz, jasoko du diru-laguntza izen generikoa ere agertzen bada, esaterako, "Arantxa oinetakoak" edo "Tximeleta belar-denda".
4. Diru-laguntza jaso ahal izateko errotuluak zuzen idatzita egon beharko du. Horretarako, laguntzen onuradun izan daitezkeen haiek Udaleko Euskara Zerbitzuaren doako itzulpen, zuzenketa eta aholkularitza zerbitzua erabili ahalko dute.
5. Errotuluak euskaraz eta gaztelaniaz egiten badira, hizkuntza bakoitzean agertzen den testuak antzekoa izan beharko du neurriari, kokapenari eta gainerako ezaugarriei dagokienez.

OBJETO:

El Patronato Municipal de Cultura de Zizur Mayor concederá subvenciones a los comerciantes de la localidad que utilicen el euskera en la rotulación de su establecimiento (rotulación en fachadas, escaparates, toldos y vehículos comerciales), siguiendo estas bases:

BASES:

1. Estas ayudas se abonarán con cargo a la partida presupuestaria 1 33500 4820006 del Patronato Municipal de Cultura del año 2018. Se destinará a este objetivo un máximo de **1.500,00** euros.
2. El Patronato Municipal de Cultura de Zizur Mayor subvencionará el 50% del gasto de las nuevas rotulaciones cuando el establecimiento utilice el euskera en la nueva rotulación. Para cada nueva rotulación se subvencionará un máximo de 300,00 euros.
3. La persona responsable del establecimiento no recibirá ayuda cuando en la nueva rotulación sólo figure el nombre propio; por ejemplo "Arantxa" o "Tximeleta". En cambio, sí recibirá subvención si figura también el nombre genérico en euskera, por ejemplo: "Arantxa oinetakoak" o "Tximeleta belar-denda".
4. Para recibir la subvención el rótulo deberá estar correcta y adecuadamente escrito. Para ello las posibles personas beneficiarias de la subvención, podrán realizar uso gratuito del servicio de traducción, corrección y asesoramiento del Servicio de Euskera Municipal.
5. En las rotulaciones en euskera y castellano, el texto de los dos idiomas será semejante en cuanto a tamaño, colocación y otras características.

6. Diru-laguntza eskatzeko prozedura. Eskaera errotulu berria jarrita dagoenean egingen da. Eskatzaileak, eskaera-orriarekin batera, honako agiriak aurkeztuko ditu Zizur Nagusiko Udalaren Kultur Patronatuko Erregistroan: errotuluaren faktura (jatorrizkoa edo kopia konpultsatua) eta errotuluaren bi argazki (bat orokorra, aurrealde osokoa; eta bestea zehatza, errotuluarena).

7. Eskaerak, aurreko artikuluan azaldutako dokumentazioarekin batera, 2018 urte osoan zehar aurkezten ahalko dira.

8. Diru-laguntzaren esleipena. Euskara Zerbitzuaren txostena jasota, aurkeztutako eskaerei dagozkien diru-laguntzak erabakiko dira. Diru-laguntzak erregistroko dataren araberrako hurrenkeran esleituko dira, diru-saila agortu arte. Euskara Zerbitzuaren txostena aldekoa izanda ere, diru-laguntza ematerik ez badago, kontu-saila agortuta dagoelako, eskatzaileak berriro eskatu ahalko du diru-laguntza hurrengo urteko lehenengo hiru hilabeteetan. Patronatuak horrela jakinaraziko dio eskatzaileari.

9. Ebazpenaren kontra, bide administratiboa itxiko duena, errekurtsio hauetakoren bat jarri ahalko da aukeran:

- ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZIERREKURTSOA, Nafarroako Administrazioarekiko Auzien eskumeneko organo eskudunari zuzendua, ebazpena jakinarazi eta biharamunetik BI HILABETEKO epean.
- GORA JOTZEKO errekurtsioa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, ebazpena jakinarazi eta ONDOKO HILABETEAN.
- BERRAZTERTZEKO errekurtsioa, egintza erabaki duen organoari zuzendua, erabakia jakinarazi eta hilabeteko epean.

10. Jarduera eta obra lizentziarekin batera, Udalak interesdunei gai honen inguruan lortu daitekeen diru-laguntzaren berri emanen die.

6. Procedimiento para solicitar la subvención. La solicitud se realizará una vez colocada la nueva rotulación. La persona solicitante presentará en el Registro del Patronato Municipal de Cultura de Zizur Mayor, junto con la instancia correspondiente: la factura del rótulo (original o fotocopia compulsada) y dos fotografías del rótulo (una general de la fachada y otra detallada del rótulo).

7. Las solicitudes, junto a la documentación expresada en el artículo anterior, se podrán presentar durante todo el año 2018.

8. Concesión de ayudas. Una vez recibido el informe del Servicio de Euskera, se resolverán las ayudas correspondientes a las solicitudes presentadas. Las ayudas se otorgarán siguiendo el orden de registro, hasta agotar la partida existente. En el caso de que, aun siendo positivo el informe del Servicio de Euskera, no se pueda abonar la ayuda por estar agotada la partida presupuestaria, la persona solicitante podrá volver a hacer la solicitud durante el primer trimestre del año siguiente. Así lo comunicará el Patronato a la persona solicitante.

9. Contra dicha resolución, que pondrá fin a la vía administrativa, cabrá interponer optativamente uno de los siguientes recursos:

- Recurso CONTENCIOSO-ADMINISTRATIVO ante el órgano competente de la Jurisdicción Contencioso-Administrativo de Navarra en el plazo de DOS MESES contados desde el día siguiente al de la notificación de la resolución.
- Recurso de ALZADA ante el Tribunal Administrativo de Navarra en el plazo de UN MES siguiente a la fecha de notificación de esta resolución.
- Recurso de REPOSICION ante el mismo órgano autor del acto en el plazo de UN MES a partir del día siguiente al de la notificación de esta resolución.

10. Junto a la licencia de actividad y obra el Ayuntamiento dará información a las personas interesadas de la posibilidad de solicitar ayuda por el concepto de rotulación en euskera.

11. Arautzeko legedia. Deialdia hemen azaldutako oinarrien arabera arautuko da. Agiri honetan esaten ez denaz ebazteko honako arautegi honi begiratuko zaio:

- Nafarroako Toki Administrazioaren 6/1990 Foru Legea.
- Nafarroako Toki Ogasunen 2/1995 Foru Legea.
- Nafarroako Ogasun Publikoaren 13/2007 Foru Legea eta, osagarritzat hartuta, Aurrekontuen Lege Orokorra.
- 887/2006 E.D (Araudia).

Zizur Nagusian, 2018ko otsailaren 23an.

11. Normativa reguladora. Esta convocatoria se regirá por las bases recogidas en este documento, y en lo no previsto en él, por lo establecido en la siguiente normativa:

- Ley Foral 6/1990 de Administración Local de Navarra.
- Ley Foral 2/1995 de Haciendas Locales de Navarra.
- Ley Foral 13/2007 de la Hacienda Pública de Navarra y, de forma supletoria, la Ley General Presupuestaria.
- R.D. 887/2006 (Reglamento)

Zizur Mayor, a 23 de febrero de 2018.

Zutoia Toral Urquizu

PATRONATUBURUA / LA PRESIDENTA DEL PATRONATO